



320/2021 Ebazpena, ekainaren 16koa, Osakidetza Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez agindu baita argitaratu behar direla Osakidetzaren web-orrian 5 Lehentasuneko aldi baterako kontratazio-zerrenda behin betikoak (2018ko Kontratazio-zerrendak), modalitate hauetan: A.1. (Fakultatibo Medikoak) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda

Osakidetzako zuzendari nagusiak maiatzaren 28an emandako 1135/2015 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa eskuratzeko 2014-15eko Enplegu Publikorako Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak. (EHAA, 102 zk., 2015eko ekainaren 3).

2014-15eko Enplegu Publikorako Eskaintzaren ondoriozko aldi baterako kontratazio-zerrendak Osakidetza Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluak 2011ko maiatzaren 9an emandako Erabakiaren arabera arautzen dira (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6).

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariarena apirilaren 26ko 208/2021 Ebazpenaren bidez argitaratu ziren Osakidetzaren web-orrian 5 Lehentasuneko aldi baterako kontratazio-zerrenda behin-behinekoak (2018ko Kontratazio-zerrendak), modalitate hauetan: A.1. (Fakultatibo Medikoak) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Behin-behineko zerrenda horien aurka ezarritako erreklamazioak aztertu ondoren,


EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Aldi baterako kontrataziorako 2018ko 5 lehentasuneko behin betiko zerrendak Osakidetzako web-orrian argitaratzeko agintzea, modalitate hauetan: A.1 (Fakultatibo Medikoak) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Zerrenda horiek 2021eko ekainaren 17tik aurrera egongo dira indarrean.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiarri. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Eazpen hau web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 16a


Osakidetza
María Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Sin.: María Pilar Uriarte Brizuela

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD